

JOKABIDE KODEA**AURKIBIDEA**

- 0. Xedea**
- 1. “Jokabide kodearen” irismena**
- 2. Eskakizuna eta betetzeko konpromisoa**
- 3. Printzipioak eta balioak**
- 4. “Jokabide kodearen” komunikazioa eta eskuragarritasuna**
- 5. Pertsonen buruzko arauak**
 - 5.1 Legeria betetzea
 - 5.2 Barne Araudia
 - 5.3 Opariak
 - 5.4 Interes gatazkak
 - 5.5 Konfidentzialtasuna
 - 5.6 Ustelkeria eta eroskeria
- 6. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak**
 - 6.1 Osasunaren zaintza
 - 6.2 Laneko arriskuen prebentzioa
 - 6.3 Indarrean dagoen legeria betetzea
- 7. Ingurumenari buruzko arauak**
 - 7.1 Indarrean dagoen legeria betetzea
- 8. Lehentasunezko interes taldeei buruzko arauak**
 - 8.1 Bezeroak
 - 8.2 Hornitzaileak
 - 8.3 Administrazioak
 - 8.4 Gizartea
 - 8.5 Lehia
- 9. Delituak eta arrisku penalak prebenitzeko kudeaketa sistema**
- 10. “Jokabide eta ‘compliance’ penalerako Batzordea”**
 - 10.1 Ez-betetzeak jakinarazteko barne bideak
 - 10.2 Ez-betetzeak jakinarazteko kanpoko bideak
 - 10.3 Diziplina araubidea
 - 10.4 Betetzearen ebaluazioa eta eguneratzea
- 11. Lanketa eta onarpena**

JOKABIDE KODEA

0. Xedea

"Jokabide kode" honen xedea da "Mondragon Assembly" Taldeko langileek, interes talde guztiekin dauzkaten harremanetan, zer jokabide arau jarraitu behar dituzten ezartzea, Taldeak diharduen herrialdeetan indarrean dagoen legeria eta araudia zorrotz bete dadin. Legea eta araudia argi ez dauden edo hain zorrotzak ez diren lekuetan, "Jokabide kode" hau izango da bete beharreko erreferentziazko araua.

1. "Jokabide kodearen" irismena

"Jokabide kode" hau "Mondragon Assembly" Taldeko enpresetako bazkide guztiei aplikatu dakieke, bai eta "Mondragon Assembly" Taldeko enpresa batzuentzat edo haien izenean lan egiten duten eta beste erakunde edo profesional autonomo batzuen bidez zuzenean kontratatuta dauden pertsona guztiei ere.

"Jokabide kode" hau jendartean zabalduko da, gizartea oro har jakinean egon dadin, eta ahalegina egingo da "Mondragon Assemblyrekin" hornitzaile, bezero eta auditore gisa interakzio handiena duten lehentasuneko interes taldeek ezagutu eta bere egin dezaten.

2. Eskakizuna eta betetzeko konpromisoa

"Jokabide kode" hau nahitaez bete behar dute aplikagarri zaien pertsona guztiek, aurreko puntuan adierazten den bezala, eta pertsona horiei jakinarazi eta betetzeko eskatu beharko zaie.

3. Printzipioak eta balioak

"Mondragon Assembly" Taldearen matrizea eta jatorria Aretxabaletan dago (Gipuzkoa), eta "Mondragon" kooperatiba taldeko enpresa kooperatibo bat da. Horregatik, bere **printzipio kooperatiboak eta balioak** ditu inspirazio iturri. Printzipio eta balio horiek aplikatzen ditu, eta, ahal den neurrian, munduko beste leku batzuetan dauden eta antolaketa kooperatiborik ez duten Taldeko gainerako enpresetara helarazten ditu.

"Mondragon Assembly" Taldea erakunde dinamikoa da, internazionalizazioaren alde egiten duena eta konprometituta dauden eta kide izatearen sentimendu handia duten pertsonen osatzen dutena. "Mondragon Assembly" Taldeak automatizazioaren soluzio industrialak lantzen ditu; gainera, eskaintzen duen zerbitzuaren bidez bikaintasuna bilatzen du, bai eta diharduen sektore industrialetako bezeroen artean konfiantza sortzea ere.

Hauek dira bere lana zutabetzen duten funtsezko balioak, langileen jarduna ebaluatzeko erabiltzen direnak:

- Proaktibitatea eta lidergoa
- Berrikuntza
- Pertsonen garapena
- Talde lana
- Bikaintasuna
- Bezeroarenganako hurbiltasuna

Labur-labur, Mondragon Assemblyren eguneroko jarduna:

- Elkartasun konpromisoetan oinarritzen da, eta metodo demokratikoak erabiltzen ditu antolatze eta aurrera egiteko.
- Pertsonen beren enpresen kudeaketan, emaitzetan eta jabetzan parte hartzea eta integrazioa sustatzen du, garapen soziala, enpresa arlokoa eta pertsonala bateratzeko proiektu komuna garatuz.

JOKABIDE KODEA

- Giza gaitasunak eta gaitasun teknologikoak garatzeko prestakuntza eta berrikuntza sustatzen ditu.
- Kudeaketa eredu propioa aplikatzen du, lidergo posizioak lortzeko eta lankidetzak sustatzeko.

Jarduera sozial arduratsuen ildo beretik, "Mondragon Assembly" konpromisoa adierazten du estatuko eta nazioarteko legerian jasotzen diren giza eskubideak betetzeko, eta bere gain hartzen du hainbat adierazpen eta ekimen betetzea; horien artean: **Giza Eskubideen Adierazpenaren Oinarrizko Printzipioak (NBE, 1948)**, Nazio Batuen Mundu Itunaren printzipioak eta erantzukizunaren, elkartasunaren, askatasunaren, demokraziaren eta justiziaren filosofia bera jarraitzen duten beste batzuk, hala nola ELGAK enpresa multinazionalentzat emandako jarraibideak, Hiruko Adierazpena eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen Gizarte Politika.

4. "Jokabide kodearen" komunikazioa eta eskuragarritasuna

"Jokabide kode" honen irismenaren barruan dauden pertsona guztiei kodearen edukiaren eta segidako eguneratzeen berri eman behar zaie; gainera, beti izan behar dute eskura dokumentu eguneratua.

Pertsonen jakinarazteko erantzukizuna "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordearena" da (ikus 10. puntua), Pertsonen Zuzendaritzarekin koordinatuta, izan ere, Pertsonen Zuzendaritza horri eskuordetu ahal izango dio, egoeraren arabera.

"Jokabide kodea" publikoa da.

5. Pertsonen buruzko arauak

5.1 Legeria betetzea

"Mondragon Assembly" konpromisoa hartzen du indarrean dagoen legeria zorrotz betetzeko (eta, ahal den neurrian, gainditzeko), honako hauei dagokienez:

- Lan kontratuak (soldata, ordutegia, egutegia, aseguru...)
- Lan baldintzak (ingurune osasungarria, garbia eta segurua...)
- Haurren lana edota lan behartua edo nahitaezkoa gaitzestea
- Diskriminaziorik eza eta aukera berdintasuna
- Jazarpena (jazarpenari aurre egiteko politika bat dago)
- Intimitaterako eskubidea (DBLO) (pribatutasun eta konfidentzialtasun politika bat dauka)
- Elkartzeko eta negoziozko kolektiborako eskubidea errespetatzea
- Gutxiengo etnikoen eta Taldeak lanean diharduen herrien eskubideak errespetatzea

5.2 Barne Araudia

"Mondragon Assembly" "barne araudi" bat dauka, eta, bertan, LANEKO DIZIPLINA ARAUBIDEAREN V. kapituluaren, bazkide langile batek lan jardunean egin ditzakeen hutsegite arinak, larriak eta oso larriak zehazten dira. "96. ARTIKULUA. LANEKO HUTSEGITEENGATIKO ZEHAPENAK" delakoan zehaztuta dago hutsegite horiek zein zehapeni zor zaizkien.

5.3 Opariak

Oro har, "Mondragon Assembly" Taldeko langileek ezin dute oparirik ez eman ez hartu beren jardueraren profesionalen.

Salbuespen gisa, opariak eman edo hartu ahal izango dira baldin eta kortesiazko keinua besterik ez badira, balio ekonomiko hutsala badute eta jasotzen duen pertsonari erabakiak hartzeko presioa sentiarazten ez

JOKABIDE KODEA

badiote. Sozialki onargarriak izan behar dute, eta ez dute deserosotasunik sortu behar ez jasotzen duenarengan, ez ematen duenarengan eta ezta, besterik gabe, horren jakitun denarengan ere.

Oro har, zalantzarik izanez gero, ezetz esango zaio, edo bestela "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeari" galdetuko zaio.

5.4 Interes gatazkak

Langile baten interes pertsonalak eta "Mondragon Assemblyrenak" zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean, interes gatazka dagoela esaten da. "Mondragon Assemblyko" langileen erabakiek ez dute harreman pertsonalek, harreman familiarrek edo bestelako interes partikularrek baldintzatuta egon behar. Zalantzarik izanez gero, langileak "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeari" galdetuko dio.

"Mondragon Assemblyk" interes gatazkak kudeatzeko politika bat dauka.

5.5 Konfidentziasuna

Informazio konfidentzialtzat jotzen da:

- Esplizituki halakotzat joa izan den informazio oro.
- Hirugarrenen eskutik konfidentziasun akordiopean jasotakoa.
- Langileek, beste enpresa batzuek eta hirugarren pertsonak "Mondragon Assemblyri" buruz emandakoa, enpresak berak edo haren jabeek publiko egin ez dutena.

"Mondragon Assemblyko" langile guztiek konpromisoa hartzen dute diskrezioa eta konfidentziasuna gordetzeko beren lana egitean kudeatzen duten informazio guztiari dagokionez. Inork ezin izango du informazio konfidentzialik zabaldu baimenik gabe.

"Mondragon Assemblyk" datuen babesari buruz indarrean dagoen legeria guztia betetzeko konpromisoa hartzen du.

5.6 Ustelkeria eta eroskeria

"Mondragon Assemblyko" pertsonak ez dute, inondik inora ere, ekintza ez-etikorik egingo hirugarrenei xantaia, eroskeria edo mehatxuen bidez presio egiteko, hirugarren pertsona horiek "Mondragon Assemblyren", beren buruaren edo beste pertsona edo erakunde batzuen aldeko erabakiak har ditzaten. Era berean, "Mondragon Assemblyko" pertsonak ez dute onartuko erakundeari edota hirugarrenei kalte egingo dieten erabakiak hartzeko presioa jasatea.

Hirugarrenez ari garenean, ulertu behar da edozein erakunde publiko edo pribaturen zerbitzura dagoen edozein pertsonaz ari garela. ("Mondragon Assemblyk" badauka ustelkeriaren aurkako politika bat)

6. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak

Pertsonen segurtasuna eta osasuna eta laneko arriskuen prebentzioa "Mondragon Assemblyren" ohiko kudeaketan integratutako lan arloak dira, izan ere, arreta eta baliabideak eskaintzen zaizkie arlo horiei.

6.1 Osasunaren zaintza

"Mondragon Assembly" enpresako pertsona guztientzako arreta medikoko zerbitzu bat eta osasuna zaintzeko plan bat dauzka, eta bete egiten ditu.

6.2 Laneko arriskuen prebentzioa

"Mondragon Assembly" **ISO-45001** arauaren arabera ziurtatuta dauka laneko arriskuen prebentziorako darabilen kudeaketa sistema, eta konpromisoa hartzen du ziurtagiri horri (edo baliokide bati) eusteko eta arlo horretan egiten duen lana hobetzeko, enpresako pertsonen ongizatearekin, osasunarekin eta segurtasunarekin duen erantzukizunaren ebidentzia gisa.

6.3 Indarrean dagoen legeria betetzea

"Mondragon Assembly" konpromisoa hartzen du lan arlo honetan aplikagarri den indarreko legeria betetzeko.

7. Ingurumenari buruzko arauak

Ingurumenarekiko errespetua eta bere jardueraren inpaktua ahal den neurrian minimizatu eta murrizteko lana "Mondragon Assemblyren" ohiko kudeaketan integratutako lan arlo bat da, izan ere, arlo horri arreta eta baliabideak eskaintzen zaizkio. Erantzukizun ildo horretan, "Mondragon Assembly" arlo horretan duen kudeaketa sistema **ISO-14001** arauaren arabera ziurtatuta dauka. Ziurtagiri horri (edo baliokide bati) eusteko konpromisoa hartzen du, eta, gainera, arlo horretan egiten duen lana etengabe hobetuz joateko lan egingo du, garapen jasangarriarekin duen konpromisoaren erakusgarri.

7.1 Indarrean dagoen legeria betetzea

"Mondragon Assembly" konpromisoa hartzen du lan arlo honetan aplikagarri den indarreko legeria betetzeko.

8. Lehentasunezko interes taldeei buruzko arauak

8.1 Bezeroak

"Bezeroarenganako hurbiltasuna", zeina "Mondragon Assemblyren" funtsezko sei balioetako bat den, bezeroek enpresarentzat duten berebiziko garrantzia erakusten du, izan ere, bezeroak dira estrategia definitzeko erreferentzia nagusi eta gidaria.

"Mondragon Assembly" ahalegintzen da konfiantzan eta errespetuan oinarritutako epe luzeko harreman egonkorak izaten bezeroekin, eta, horretarako, ezinbestekoa da jokabide etikoa izatea, betiere alde bakoitzaren interes legitimoak kontuan hartuta.

"Mondragon Assembly" bere bezeroei produktuaren eta zerbitzuaren kalitaterik onena emateko lan egiten du, betiere irizpide etikoak, lanekoak, sozialak, segurtasunekoak eta ingurumenekoak kontuan hartuta. Ildo horretan, "Mondragon Assembly" bezeroaren gogobetetzeari buruzko inkestak egiten ditu, emaitzak aztertzen ditu eta hobetzeko ekintzak abian jartzen ditu.

"Mondragon Assembly" **ISO-9001** ziurtagiria dauka, eta horri eusteko konpromisoa hartzen du, kudeaketaren kalitatea etengabe hobetzeko eta jardueraren arlo guztietan bikaintasuna bilatzeko konpromisoaren erakusgarri.

Merkatura eta bezeroengana hurbiltzeko, publizitate eta komunikazio etikoa erabiltzen da mezuetan, eta eskaintza komertzial argi eta zintzoak aurkezten dira, eskaintzen diren produktu eta zerbitzuei buruzko zalantzarako tarterik utzi gabe, honako hauek ere barne hartuta:

- Prezioa eta ordaintzeko eta entregatzeko baldintzak barne hartzen dituen kontratua
- Bermea eta saldu osteko zerbitzua

JOKABIDE KODEA

- Komunikazio kanal argiak, harreman komertzial ona izateko, keak eta erreklamazioak barne

8.2 Hornitzaileak

Hornitzaileak beharrezko aliatuak dira "berrikuntzaren" eta "bikaintasunaren" funtsezko balioak garatzeko, bezeroei produktu eta zerbitzu ona ematen laguntzeko. Bezeroen kasuan gertatzen den bezala, hornitzaileekiko harreman egonkorrak eta epe luzekoak bilatzen dira, elkarrekiko errespetuan eta jokabide etikoan oinarrituz.

"Mondragon Assemblyk" bere hornitzaileak ebaluatzen ditu (kalitatean, prezioetan, zerbitzuan, berrikuntzan, segurtasunean, lan ingurunean...) eta ekintza planak adosten ditu haiekin, jarduna hobetu eta bi aldeentzat onuragarri izan dadin.

"Mondragon Assemblyk" arretaz erreparatuko die hornitzaileek ematen dituzten bermeei, alegia, giza eskubideak eta langile guztien eskubideak betetzen dituztela, haurrik esplotatzen ez dela, lan beharturik ez dagoela eta laneko osasuna eta segurtasuna babesten direla erakusten duten bermeei.

8.3 Administrazioak

"Mondragon Assemblyk" leialtasun, elkarrekiko konfiantza, gardentasun, fede on eta lankidetzako harremanak izaten ditu beti jarduten duen tokietako administrazio guztiekin, eta bere zerga betebeharrak betetzen ditu.

"Mondragon Assemblyk" lege eta araudi aplikagarri guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du. ("Mondragon Assemblyk" badauka dirulaguntzen gaineko politika bat)

8.4 Gizartea

"Mondragon Assemblyk", Mondragon Kooperatiba Taldearen parte izanik eta haren printzipioak eta balioak bere eginez, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Aberastasunaren banaketa solidarioa.
- Gizartea eraldatzeko borondatea, gizarte askeago, zuzenago eta solidarioagoa helburu.
- Ekonomia sozialaren alorrean demokrazia ekonomikoaren alde lan egiten duten guztiekin lan egitea, nazioarteko kooperatibismoak bereak dituen bake, justizia eta garapen helburuak bere eginez.
- Hezkuntza kooperatiboan, lanbide hezkuntzan eta gazteriarenean giza baliabide eta baliabide ekonomiko nahikoak jartzea.

8.5 Lehia

"Mondragon Assemblyk" uste du lehia, legea errespetatuz eta etikoki eginez gero, lagungarria dela enpresak eta ekonomia hobetzeko.

"Mondragon Assemblyk" konpromisoa hartzen du legez eta leialtasunez lehiatzeko, lehiakideei edo hirugarrenei buruzko legez kontrako edo errespeturik gabeko publizitaterik egin gabe.

"Mondragon Assemblyk" konpromisoa hartzen du bere lehiakideei buruzko informazioa legez lortzeko.

9. Delituak eta arrisku penalak prebenitzeko kudeaketa sistema ("compliance")

JOKABIDE KODEA

"Compliance" penala Mondragon Assemblyren kudeaketan integratutako lan arlo bat da, eta arlo horri arreta eta baliabideak eskaintzen dizkio. Mondragon Assemblyk "compliance" penalerako politika bat du, bai eta hura kudeatzeko sistema bat ere, enpresan eta harekin lotzen diren pertsonen portaeran eta jarreran kultura bat sortzeko bitarteko gisa.

10. "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordea"

"Jokabide kode" hau –zehazki– eta "compliance" penalarik dagokion guztia betetzen dela zaintzeko, "Mondragon Assemblyko" Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzorde" bat sortu du. Batzorde hori honako hauek osatzen dute: Zaintza Batzordeko kideek, Kontseilu Errektoreko kide batek eta "jokabidearen eta compliance-aren arduraduna" den beste pertsona batek, zeina Batzordearen koordinatzaile eta kide iraunkorra izango baita. Batzorde hau da "compliance-a" kudeatzearen ondoriozko betebeharrak gainbegiratu, zaindu eta kontrolatzeko berme nagusia, eta egiaztatuta dago erakundeko gainerako organoen erabateko lankidetzak eskatzeko eta jasotzeko. "Kontseilu Errektorerako" (gobernu organoa) sarbide zuzena eta berehalakoa du, baldin eta egitate edo jokabide susmagarriak edo bere egitekoarekin zerikusia duten beste gai batzuk aurkeztu behar baditu.

Hona hemen Batzordearen erantzukizun nagusiak:

- "Delituak eta arrisku penalak prebenitzeko kudeaketa sistema" ("compliance") kudeatzea, honetarako:
 - Ezarpena eta eraginkortasuna bultzatzea eta gainbegiratzea
 - Enpresako kideei prestakuntza eta laguntza ematea
 - Erantzukizunak lanpostuen deskripzioetan eta enpresako kideen jarduna kudeatzeko prozesuetan sar daitezen sustatzea
 - Enpresan eragina izan dezaketen legezko, gizarteko, laneko eta ingurumeneko arriskuak (penalak) identifikatzea, negozio bazkideekin zerikusia dutenak barne, arrisku horiek ebaluatzea eta horiek saihesteko edo gertatzeko probabilitatea murrizteko ekintzak abian jartze aldera.
- Zuzendaritza Kontseiluari (goi zuzendaritza) eta Kontseilu Errektoreari (gobernu organoa) aholku ematea iradokizunei, ekimenei eta hobetzeko proposamenei buruz
- "Jokabide kodeari" eta "compliance-ari" buruzko guztia zabaltzea eta behar bezala komunikatzea
- "Jokabide kodearekin" eta "compliance-arekin" zerikusia duen guztiaren interpretazioari buruzko kontsultei eta zalantzei erantzutea
- Jasotako komunikazioak eta salaketak ikertzea, egoera susmagarriak ikertzea eta Kontseilu Errektoreari (gobernu organoa) dagokion irizpena ematea, ekintza proposamenarekin batera
- "Compliance-aren" kudeaketarekin zerikusia duen guztiaren betetze maila eta edukia urtero berrikustea, eta, hala badagokio, dagozkion eguneratzeak egitea
- Jardunaren adierazleak ezartzea eta neurtzea, "compliance-a" kudeatzeko
- "Compliance-aren" kudeaketa aplikatzearen ondoriozko emaitzen berri ematea urtero Zuzendaritza Kontseiluari (goi zuzendaritza), Kontseilu Errektoreari (gobernu organoa) eta enpresari Batzar Orokorrean

Batzordea hiru hilean behin bilduko da gutxienez, eta egoerak hala eskatzen duen aldiro.

10.1 Ez-betetzeak jakinarazteko barne bideak

Norbaitek delituren bat egin izanaren edo "Jokabide kodean" eta erantzukizun sozialari buruzko politiketan jasotako printzipio eta balioren bat urratu izanaren zantzuak edo susmoa izango balu, zuzenean jakinarazi beharko lioke "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeko" edozein kideri, edo helbide elektronikoa honen bidez:

JOKABIDE KODEA

gestionetica@mondragon-assembly.com

"Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeak" komunikatzen duen pertsonaren konfidentziasuna bermatuko du, eta pertsona horri behar bezala jakinaraziko zaio zer egingo den, ez duela inolako errepresaliarik izango jakinarazteaz gainera (betiere salaketa zintzoki eta fede txarrik gabe egin bada).

10.2 Ez-betetzeak jakinarazteko kanpo bideak

"Mondragon Assemblytik" kanpoko pertsonaren batek susmatuko balu "Mondragon Assemblyko" pertsonaren batek edo batzuek delituren bat egin duela/dutela, edo jokabide okerrak, ez oso etikoak zein desegokiak izan dituela/dituztela, zuzenean jakinarazi ahal izango dio "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeari", honako helbide honen bidez:

socialresponsibility@mondragon-assembly.com

"Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeak" komunikatzen duen pertsonaren konfidentziasuna bermatuko du, eta pertsona horri behar bezala jakinaraziko zaio zer egingo den, eta jakinaraziko zaio, halaber, ez duela inolako errepresaliarik izango (betiere salaketa zintzoki eta fede txarrik gabe egin bada).

10.3 Diziplina araubidea

"Jokabide kodea" betetzen ez duten pertsonak dagokien zehapena bete beharko dute, enpresaren "barne araudian" jasotakoaren arabera (ikus "Jokabide kodearen" 5.2 puntua); horrek ez du esan nahi, ordea, pertsona horiek beste erantzukizun penalik eduki ahal izango ez dutenik. Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) ezarriko ditu zehapenak.

10.4 Betetzearen ebaluazioa eta eguneratzea

"Jokabide kodearen" betetze eta egokitzapen maila urtero ebaluatuko du "Jokabide eta 'compliance' penalerako Batzordeak".

Eguneratzeak Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) baliozkotu beharko ditu beti, eta enpresa osoari jakinaraziko zaizkio Batzar Orokorrean, edo beste une batean, egoerak hala eskatzen badu.

11. Lanketa eta onarpena

"Jokabidearen eta 'compliance' penalaren arduradunaren" erantzukizuna da "Jokabide kodea" lantzea eta eguneratzea.

Kontseilu Errektoreak (gobernu organoa) baliozkotuko du kodea, eta enpresako pertsona guztiek izango dute hura ezagutzeko eta betetzeko betebeharra, berariaz sinatu duten ala ez kontuan hartu gabe.